

LIBURU BALTZAK ETA ITXAROPEN TRISTEAK

(Jose Basterrechea «Oskillaso», El libro negro del Euskera, Bilbao
1984)

Azken unekada honetan linguistikazko liburuak aurkitzea ez da horren zaila; lan interesgarri edo apalagoak, begirada bat emoteko atseginak, liburutegiak hornitzeko beste.

Baina liburu hau ez da hain irribarretsua: errustikaz egina, irudi motza azalean eta erosteko gogoak zalantzan jartzekolako titulua, «El libro negro del Euskara». Liburua bidetxo bat da, ez dirudi mundu guztiari eskeini jakonik, euskaldun zaharrak egin-dako galderak dira eta, beraz, entzule multzo motz bati eginak. Kontaketa arina da, indartsua; batzutan helburua ilundu arren, jarraigarrria. Dena dela obran tonu desekilibrio bat dago: oihutik kritika matizatura pasatzea ez da oso arraroa, alderantziz bere ez.

Zein da aukera? Obraren mamia?

Euskera hizkuntza ez-disglosikoen kriterioz juzgatuz eraiki da liburuia, nahiz eta hau batzutan obraren gaitza bihurtu.

Zelan interpretatuko da hizkuntza? Bizitzan: elkarriketan eta transmisioan.

Hizkuntza guztietan transmisioa familiaren eskuetan dago;

prestigio nahikoa izanik eta gurasoak hizkuntza bera erabiliz edozein hizkuntzak dirau.

Transmititutako hizkerak elkarrizketaz inguruarekin lotura egitean, bizitzen jarraitzen dau. Hau da hizkuntza normalen funtzionakera, eta autorearen konklusioa, beraz, euskaldun «normalak», euren inguruko sistema bizitzan erabilten dabenak, indartzea izango da.

Hizlari honek bakarrik betetzen dabez komunikazioko baldintzak eta, hau olan izanik, edozer espresatzeko beste dira («cada grupo lingüístico ha desarrollado vocabulario y esquemas semánticos capaces de dar expresión clara y precisa de todo lo que constituye su acervo cultural») nik azpimarkaturik «su» eta bereziki «grupo lingüístico»: orain arte inguru hurbilean mubitu gara, baina euskalki ezbardintasuna erromantzeena baino handiagoa da (270. orrialdean, baina konturatu oharratz: «claro que no hemos hablado de sistemas fonéticos porque sólo nos ocupa la unificación literaria»). Holan ikusirik, euskalkien izateak Quechua gogoratzen dau: Quechua ofizialtzerakoan linguistek ez eben lortu modelo bakar bat, batzuk baino; 2. egoera hau, euskera mailan, zaharra da («al reducir el euskera a tres o cuatro lenguas literarias estos autores alcanzaron prácticamente el límite máximo alcanzable en el camino hacia la unificación de la lengua» 307. orrialdea).

Zelan, beraz, gainditu euskalkien muga?

Elkarrizketa normaletan euskaldunok intuizioz eta ohituraz mobitzen gara beste euskalki bat erabiltzekoan; baina gaur egun ikasteko aukera izanik, eredu edukatiboa ta bere erabilkortasuna euskal inguruan da problema.

Irakaskuntza boterea euskararen «salbatzaile»tzat hartu badogu, sistemak errealitate osoa, euskal polimorfismoa kontuan izan beharko dau: liburuan zehar autoreak beste euskalkiak ezagutzea proposatzen du eta batua baztertu: inguruarekin lotzen ez dalako eta euskalki batzuk diskriminatzen dauzalako. Proposa-

mena idealista da eta berak sarritan aipatutako «ley del mínimo esfuerzo» baztertzen dau: nola hau, «batu» apal eta estu bat menperatzeko beste ez bagara? irakasleak euskalki bat eta batua irakasteko beste ez diranean. Euskeldunentzat alternatiba bakarra alfabetatzea (desfonetizatu eta gramatika landu) eta eredu bakar bat ikastea (batua errezago) da, besteak utopiak dira. Gero etorri beharko dira «euskara osotu»zko edo «batu zailu»zko testuak. Bakarririk holako 2. pausu batek zabalduko dau euskalkien ezagutzea.

Eta non dago *euskaldunbarria*?

Liburuaren ustez, galdua; liburuan integrazioa defenditzen da («El euskaldunbarri de zona vascofona solo contribuye a dar vida al euskera cuando dejar de ser euskaldunbarri y pasa a ser euskaldun.»); baina non integratu inguru erdaldunekoa? «No tendrá facilidad para comunicarse con euskaldunes, pero podrá hacerlo en euskara con otros euskaldunbarris» (330 orr.). Baina holako pertsona batentzat «euskaldunberri»a da inguru normala; problema bakarra beste euskeldunak onartzean dago.

Mundu barri bat, Literatura

Testuko zati atseginenak dira, duda barik: itzulpenen bizitasuna, alde guztietatik igertzen dan gustua ta interesa...

Oinarriz azterketa historiko bat egin gura izan da: purismoaren estutasunak irakurleagoa ikaratu eban eta autorearentzat batuaren akatsak funtzio bera izango dabe (nik irakaskuntzaren poderioa bere aipatuko neuke: ezin daikegu onartu idazlebako Euskaltzaindia eta ikasteko liburuz ia osorik egindako Literatura).

Pobretasuna galtzeko, autoreak bi bide proposatzen dauz; - kalitatearen zain, gure apaltasuna onartu eta itzulpen onak bultzatu (104. orria oso interesantea da).

- hizkuntza zaintzeko euskaldunak idazten bultzatu «gure kasa ibilteko» (284. orr.). Hemen bere, euskalki guztietarako eragin-

kortasunak gitxi gora behera irakazkuntzako oztopoak daukaz, nik uste, (dena dela irakurtzean bapatekotasuna ez da premia eta horretaz ez dago oso zuzen autorearen ohar bat: «a los que cantan las excelencias del euskara batua les preguntaría yo si creen apta para las necesidades de un país moderno una lengua que no se puede leer rápidamente» (72. orr.).

Hauxe da liburu horretan leidu dodana, hau, eta ondar moduan gelditzen dan kezka: Zergaitik erderaz?.

Yon Egidazu

KARMEL'en oarra:

El libro negro del euskara liburuari buruz eritxi partikular bat emoten dogu emen. Euskerearen auzian liburu ori ain garrantzitsua dan ezkeru, «Karmel»ek beste eritxi batzuk be argitaratuko ditu.